

Ezpalak

JON TORNER

Tabakalerak 70 milioi euroko aurrekontua izango du




DONOSTIAKO Tabakalerako Administrazio Kontseilua osatzen duten hiru erakundeek –Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak–, zentroa berritzeko lanak 2011ko apirilean hasiko dituztela iragarri dute, eta proiektuak 70 milioi euroko aurrekontua izango duela, hasieran aurreikusi baino 5 milioi euro gutxiago. Adierazi dutenez, obrak 2015erako bukatuko dituzte. Gainera, jakinarazi dute laugarren bazkide baten bila ari direla, gastuei errazago aurre egite aldera.

‘Iduzkilore’ obraren DVDa atera du Lapurdi 1609-2009 elkarteak

XVII. MENDEKO sorgin ehiza eta inkisizioaren errepresioa azaleratzeko sortu zuten Manex Fuchsek eta Mixel Jorajuriak *Iduzkilore* ikusgarria, Lapurdi 1609-2009 elkartearen eskutik, eta orain DVDan kaleratu dute antzezlanak. Elkarrekin modu horretan eman dio amaiera bere ibilbideari. Hainbat hilabetez erakusketak, hitzaldiak eta ekitaldiak antolatu ditu, gertaera haien “egia historikoa” ezagutarazteko asmoz, eta lan hori guztia liburu batean jaso dute.

● **Sokaide taldeko kideak elkarriketatu ditu *Entzun aldizkariak*** : «Folka Euskal Herrian, alaia izatetik serioa izatera pasa da. Ostiral edo larunbat gauez kalean emandako zuzeneko arrakastatsuetatik, igande arratseko aulkidun zuzenekoetara, zein antzoki hotz eta serioetara pasa delakoan gaude. Adibidez, asteburu honetan Bartzelonan egon gara eta harrigarria izan da bertako publikoak egindako harrera. Areto guztia saltoka, jendea dantzan eta oihuka, izugarria izan da! Pena da Euskal Herriko zenbait tokitan haxe bera lortzea horren zaila izatea. Gure helburuetako bat hori lortzea da eta badirudi, azkenaldian joera aldatzen ari dela».

Darko Drijevic (Montenegro) ilustratzaileak irabazi du Barakaldoko Nazioarteko Umore Grafikoaren Lehiaketa. 300 parte-hartzaile baino gehiago lehiatu dira hamargarren edizioan. Bigarren saria Leandro Ezequiel Martinezek (Argentina) jaso du, eta hirugarrena Nikola Listsek (Kroazia). Eskuinean, irabazlearen marrazkia.



Iñaki Ruiz de Egin artistaren *Caligromías* erakusketak uda osoan izan da ikusgai Urdazubiko (Nafarroa) San Salvador monastegiko klaustroan. Orain, eskultore donostiarrak bi pieza handi paratu ditu leku horretan: 450 kiloko *Kuboaren jaiotza* izeneko eta 3.000 kiloko *Altxa zaitez* izeneko. Horrez gain, monastegian beste hainbat obra behatu daitezke urtarilaren 2ra arte, 50 urteko *pintura Euskal Herrian* izeneko erakusketan, tartean daude Jose Luis Zume-taren margolanak.



Xabier Makazagaren *El manual del torturador español* liburua (Txalaparta, 2009) aurkako kanpaina salatu dute Euskal Herriko 104 liburuzainek: “Kezkatuta gaude zentsura-kasu honengatik, eta salatu egin nahi dugu, aurrerantzean politikoak arlo profesionalean sar ez daitezken. (...) Liburutegi publikoetako funtsek eta zerbitzuek ez dute

inongo zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosori loturik egon behar, ezta presio komertzialei ere. Txalapartak Interneten jarri du liburu osoa, doan deskargatzeko moduan.

Fernando Beorlegi (Campanas, Nafarroa, 1928-Eibar, Gipuzkoa, 2008) margolariaren atzera begirako erakusketa jaso du Lizarrako (Nafarroa) Gustavo de Maeztu museoak, *Gogoaren pintzelkada garratzak* izenburupean. Bere seme Mikel Beorlegiren hitzetan, “hamaika *ismo* erabil daitezke haren lana sailkatzen saiatzeko, baina oso zaila da. Unearen arabera aukeratzeko zuen errealitateaz zuen ikuspegia nola islatu”. Erakusketa otsailaren 28ra arte izango da zabalik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php